



HITZARMENA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEREN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKOA, "BELDUR BARIK" EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PREBENTZEKO ERAKUNDE KANPAINA GARATU ETA BATERA FINAN-TZATZEKOA, 2025. URTERAKO.

CONVENIO ENTRE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA EL DESARROLLO Y COFINANCIACIÓN DE LA CAMPAÑA INTERINSTITUCIONAL "BELDUR BARIK" DE PREVENCIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES, PARA EL AÑO 2025.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko xxx xx.

En Vitoria-Gasteiz, a xx de xxx de 2025.

### BILDU DIRA:

### SE REÚNEN

**Miren Elgarresta Larrabide andrea**, EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria, erakunde horren izen eta eskuordetzan jarduten duena (IFK: Q5150004I), EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen (urriaren 31ko 214/2006) Dekretuaren 17.2 f) artikuluari jarraikiz. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da (IFK: S4833001C).

**Dña. Miren Elgarresta Larrabide**, Directora de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer actuando en nombre y representación de dicho ente (con CIF Q5150004I), en virtud del artículo 17.2 f) del Decreto 214/2006, de 31 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer. EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer es un organismo autónomo del Gobierno Vasco (con CIF S4833001C).

**Teresa Laespada Martínez andrea.**, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua dena eta Bizkaiko Foru Aldundiaren (IFK: P4800000D) izen eta eskuordetzan jarduten duena.

**Dña. Teresa Laespada Martínez**, Diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia (con CIF P4800000D).

### HONAKO HAU AZALDU DUTE

### EXPONEN

**Lehenengoa.-** EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikularekin bat etorri, Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintza, ekonomia, kulturgintza eta gizartearen alor guztietan.

**Primero.-** De acuerdo con el artículo 2 de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer, el fin esencial del Instituto es la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social del País Vasco.

Aipatu Legeko 3. artikuluko a), h) eta n) idatz-zatietan ezartzen denez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen funtzioak izango dira aipatu xedeak lortzeko jarraibideak egitea eta horiek euskal botere publikoek aplikatu ditzaten bultzatzea; eta emakumeen eta gizonen berdintasunean, barne harturik emakumeen aurkako indarkeria matxista ere, eta emakumeen egoeran eragina duten programei dagokienez, Autonomia Erkidegoko botere publikoen artean izan beharreko koordinazio-neurriak bultzatzea. Halaber, hari dagokio herritarrak sensibilizatzea, kasuan kasu egokitzat jotzen diren sensibilizazio-, sustapen- eta zabalkunde-jarduerak eta -kanpainak eginez, herritarrak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esanahiaz eta garrantziaz jabetu daitezen, bai eta hori lortzeko eta emakumeak ahalduntzeko lan egiteko premiaz ere.

La mencionada Ley establece, en los apartados a), h) y n) de su artículo 3, que serán funciones de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer elaborar directrices destinadas a la consecución de los fines anteriormente referidos e impulsar su aplicación por los distintos poderes públicos vascos, así como impulsar medidas de coordinación necesarias entre los diversos poderes públicos de la Comunidad Autónoma con relación a los programas que tengan incidencia en la situación de las mujeres y en la igualdad de mujeres y hombres, incluida la violencia machista contra las mujeres. Asimismo, le corresponde la sensibilización a la ciudadanía, realizando las actividades y campañas de sensibilización, promoción y difusión que se consideren oportunas, sobre el significado e importancia de la igualdad de mujeres y hombres y sobre la necesidad de trabajar en su consecución y en el empoderamiento de las mujeres.





Antzera arautu da gaia Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutakoan. Hala, bertako 5 e) artikuluari jarraituz, hari dagokio euskal administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz egiten dituzten jarduketan arteko lankidetzaz bultzatzea, eta, artikuluko bereko i) idatz-zatiaren arabera, baita emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuneko egoerei buruz sensibilizatzeke eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriei buruzko jarduerak ere, Euskal Autonomia Erkidego osorako eta Euskal Herria osorako era bateratuan egin behar direnean.

Horren haritik, Erakundearen helburuetako bat da administrazioen esku-hartzea indartzea eta bultzatzea alor hauetan: emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko esku hartzea eta sexuen arteko desberdintasunaren erakusgarriak larrietatukoan, esan nahi baita emakumeen aurkako indarkerian esku hartzea, hain zuzen ere.

**Bigarrena.-** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen arabera eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2005 Foru Arauaren arabera Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio "sustapen neurriak ezartzea udalei eta gainerako toki erakundeetara emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera bideratutako programak eta jarduerak garatzeko baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak hornitzeko". (Legearen 6 h) artikulua eta Foru Arauaren 5.h artikulua).

Halaber, aipatu Legeko 6 f) artikulua arabera eta aipatu Foru Arauko 5.f artikulua arabera, bere lurralde esparruan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuneko egoerei eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriei buruzko sensibilizazio jarduerak egitea dagokio.

**Hirugarrena.-** Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Eudel-Euskal Udalerrien Elkarteak 2009az dihardute gazteei zuzendutako genero-indarkeria prebenitzeko erakundearen arteko kanpaina bat garatzen, Beldur Barik leloaren pean.

**Laugarrena.-** 2014. urteko ekitaldiaz geroztik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, Eudelek eskatuta, bere gain hartzen du Beldur Barik erakundearen arteko kanpaina kudeatzeko ardura. Kanpaina parte

En similares términos se regula la materia en el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado mediante Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo. Así, le corresponde realizar, de conformidad con su artículo 5 e), el impulso de la colaboración entre las actuaciones de las diferentes administraciones vascas en materia de igualdad de mujeres y hombres, y, según el apartado i) del mismo artículo, las actividades de sensibilización sobre la situación de desigualdad entre mujeres y hombres y sobre las medidas necesarias para promover la igualdad, cuando se hayan de realizar con carácter unitario para toda la Comunidad Autónoma vasca y para toda Euskal Herria.

En este sentido, uno de los objetivos del Instituto es reforzar y potenciar la intervención de las administraciones en la promoción de la igualdad de mujeres y hombres y en la que es la manifestación más grave de la desigualdad de los sexos: la violencia contra las mujeres.

**Segundo.-** De acuerdo con la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y con la Norma Foral 4/2018 de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres, corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia el "establecimiento de medidas de fomento a fin de dotar a los ayuntamientos y demás entidades locales de recursos materiales, económicos y personales para el desarrollo de programas y actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres". (artículo 6.h de la Ley y artículo 5.h de la Norma Foral).

Asimismo, de conformidad con el artículo 6.f) de la citada Ley, y con el artículo 5.f) de la citada Norma Foral le corresponde realizar, en su ámbito territorial, actividades de sensibilización sobre la situación de desigualdad entre mujeres y hombres y sobre las medidas necesarias para promover la igualdad.

**Tercero.-** Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y Eudel-Asociación de Municipios Vascos vienen contribuyendo desde el año 2009 en el desarrollo de una Campaña Interinstitucional de Prevención de la violencia de género dirigida a la juventud, bajo el lema Beldur Barik.

**Cuarto.-** A partir de la edición correspondiente al año 2014 EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer, a solicitud de Eudel, asume la responsabilidad de gestionar la Campaña Interinstitucional Beldur Barik. Todas las partes intervinientes en la Campaña se





hartzten duten alderdi guztiak ados daude eta alde biko hitzarmenak sinatuz kudeatzea proposatu da.

**Bosgarrena.-** Hitzarmen hau maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2a) artikulua babesean egin da. Artikulu horretan xedatutakoaren arabera, zuzenean dirulaguntzak eman ahal izango dira, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenean.

Bere aldetik, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2025erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 3/2024 Foru Arauak, izendun zainpeketa eranskinean, Emakunde Instituto Vasco de La Mujer erakundeari dagokiona ezarri du: 0905 organikoa, 232114 programa, 42300 ekonomikoa, 2019/0015 proiektua; 35.000 euroko zenbatekoa.

**Seigarrena.-** Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta Bizkaiko Foru Aldundia ados daude 2025ean Beldur Barik erakundearen arteko kanpaina garatzen laguntzeko eta, beraz, hitzarmen hau sinatzea adostu dute. Hitzarmena honako klausulak izango ditu:

#### KLAUSULAK:

##### Lehenengoa.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea dirulaguntza izenduna egituratzea da, gazteen artean emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko Beldur Barik erakundearen arteko kanpaina garatzeko.

Agiri honek, batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakundearen alde eman duen dirulaguntza eraenduko duten baldintzak erregulatzen ditu. Dirulaguntza kanpaina laguntza-teknikoaren garapenak sortutako gastuetara eta Beldur Barik kanpainaren alorrean, herritarrak sentsibilizatzeko egiten diren jarduerak edo ekintzak finantzatzera zuzenduta dago.

Bestetik, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen konpromezuak eta diruzko ekarpenak jasotzen ditu, laguntza teknikoa eta kanpaina alorrean, herritarrak sentsibilizatzeko egiten diren jarduerak edo ekintzak batera finantzatzeko.

muestran de acuerdo y se propone su gestión mediante la suscripción de convenios bilaterales.

**Quinto.-** El presente convenio se enmarca en el artículo 20.2a) de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, que establece que podrán concederse de forma directa, las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Por su parte, la Norma Foral 3/2024 de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2025, señala en el anexo de consignaciones nominativas la correspondiente a Emakunde Instituto Vasco de la Mujer: orgánico 0905, programa 232114, económico 42300, proyecto 2019/0015, importe de 35.000 euros.

**Sexto.-** Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y la Diputación Foral de Bizkaia se muestran de acuerdo en contribuir al desarrollo de la Campaña Interinstitucional Beldur Barik durante el año 2025, por lo que acuerda la suscripción del presente Convenio que se registrará por las siguientes:

#### CLÁUSULAS

##### Primera.- Objeto

El objeto del presente Convenio es articular la subvención nominativa para el desarrollo de la Campaña Interinstitucional Beldur Barik de Prevención de la Violencia contra las mujeres dirigida a la juventud.

Este documento regula, por una parte, las condiciones que regirán para la subvención otorgada por la Diputación Foral de Bizkaia a favor de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer dirigida a sufragar los costes generados para el desarrollo de la asistencia técnica y la financiación de las actividades o acciones de sensibilización a la ciudadanía que integran la campaña Beldur Barik.

Por otra parte, establece los compromisos y las aportaciones dinerarias que corresponden a EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer, con el objeto de cofinanciar la asistencia técnica y las actividades o acciones de sensibilización a la ciudadanía que integran la campaña Beldur Barik.





### Bigarrena.- Zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromisoak

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartzen du Beldur Barik erakundearen arteko kanpainaren kostuaren %23,26 finantzatzea, 2025. urtean gehienez ere 35.000 euro (hogeita hamabost mila euro) jarriz, Beldur Barik erakundearen arteko kanpainako laguntza teknikoak garatzeko eta kanpainaren alorrean, herritarrak sentsibilizatzeko egiten diren jarduerak edo ekintzak finantzatzeko. Adierazi den zenbateko hori honako hitzarmen honen formalizazioaren ondorioz erakunde onuradunak onartu dituen obligazioak betetzeko erabili behar da. Dirulaguntzaren ordainketa aurrekontuak ondoko partida honetan aplikatuko da: 0905 organikoa 232114 programa, 423.00 ekonomikoa, 2019/0015 proiektua.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du ekimena bere web orriaren eta erakundearen bestelako hedabideen bidez zabaltzeko. Horretarako, bi entitateen logotipoak agertuko dira.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiak ibilbide-orri bat ezarri eta han programaren esparruan garatzen dituen jarduketak jasoko ditu.

### Hirugarrena.- Erakunde onuraduna

1. Erakunde onuradunak bete egiten ditu Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra erregulatzeko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan xedatutako betekizun guztiak.

### Laugarrena.- Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundearen konpromisoak.

1.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak konpromisoa hartzen du gaiari buruz daukan ezagutza eta eskarmentua jartzeko, baita honako konpromisoak ere:

- Bizkaiko Foru Aldundiarekin lan plangintza bat aurkeztu eta adostea.
- Ekintzen gauzapena garatzea eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Aurreko idatz-zatien aipatutako konpromisoak betetzeko behar diren adina baliabide material eta giza baliabide jartzea.
- Kontratazio-organo eginkizunak egikaritzea.
- Hitzarmen honetan aipatzen diren ekarpenak kudeatzea.

### Segunda.- Cuantía y crédito presupuestario y Compromisos de la Diputación Foral de Bizkaia

1.- La Diputación Foral de Bizkaia, asume la obligación de financiar el 23,26% del costo de la Campaña Interinstitucional Beldur Barik, mediante la aportación en el año 2025, de la cantidad máxima total de 35.000 euros (treinta y cinco mil euros), para el desarrollo de la asistencia técnica y la financiación de las actividades o acciones de sensibilización a la ciudadanía que integran la campaña Beldur Barik. Dicho importe deberá destinarse al cumplimiento de las obligaciones asumidas por parte de la entidad beneficiaria, como consecuencia de la formalización del presente convenio. El pago de la subvención será aplicado a la siguiente partida presupuestaria: orgánico 0905, Programa 232114, , económico 423.00, proyecto 2019/0015.

2.- La Diputación Foral de Bizkaia, se compromete a divulgar esta iniciativa a través de su página web y otros medios de difusión de la institución. A tal fin se harán constar los logotipos de las dos entidades.

3.- La Diputación Foral de Bizkaia establecerá una hoja de ruta en la que recoja las actuaciones que desarrollará en el marco del programa.

### Tercera.- Entidad beneficiaria

La entidad beneficiaria reúne los requisitos exigidos establecidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

### Cuarta.- Compromisos de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

1.- EMAKUNDE- Instituto Vasco de la Mujer se compromete a aportar su conocimiento y experiencia en la materia y a:

- Presentar y acordar con la Diputación Foral de Bizkaia un plan de trabajo.
- Desarrollar y realizar el seguimiento y evaluación de la ejecución de las acciones.
- Habilitar los medios materiales y personales necesarios para el cumplimiento efectivo de los compromisos mencionados en el apartado anterior.
- Ejercer las funciones de órgano de contratación.
- Gestionar las aportaciones referidas en el presente convenio.



- f) Txostena egitea, hitzarmen honetan aipatutako konpromisoen arabera egindako lanari buruz.
- g) Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira herritarrei jardueraren berri emateko egiten diren liburuxketan, karteletan edo bestelakoetan (63/2019 FORU DEKRETUA, maiatzaren 28koa)
- h) Hizkuntza eta irudi mota guztiak modu inklusiboan eta ez-sexistan erabiltzea.
- i) Genero-ikuspegia sartzea egiten diren azterlan eta estatistiketan.
- f) Elaborar una memoria relativa a la labor desarrollada con relación a los compromisos referidos en este convenio
- g) En todos los folletos, los carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de la actividad subvencionada a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales (DECRETO FORAL 63/2019, de 28 de mayo)
- h) Hacer un uso inclusivo y no sexista de todo tipo de lenguaje e imágenes.
- i) Incluir la perspectiva de género en estudios y estadísticas que se lleven a cabo.

2.- Era berean, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bere gain hartzen du Beldur Barik erakundearen arteko kanpainaren laguntza teknikoaren eta Beldur Barik kanpaina osatzen duten gainerako jardueren kostuen, gutxienez, %50 finantzatzeko betebeharra, partida hauetatik eratorritako gehieneko kopuruen bitartez:

- 2025 2054701000 1.32230.24499 2019/001463: 97.000,00 €  
- 2025 2054701000 1.32230.40200 2019/001465: 205.000,00 €

2.- Asimismo, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer asume la obligación de financiar, al menos, el 50% del costo de la asistencia técnica y del resto de actividades que integran la campaña Beldur Barik, mediante la aportación de la cantidad máxima derivada de las partidas siguientes:

- 2025.2054701000 1.32230.24499 2019/001463: 97.000,00 €  
- 2025 2054701000 1.32230.40200 2019/001465: 205.000,00 €

Zenbateko horrek, hiru foru aldundiek jartzea aurreikusita dagoen zatiarekin batera (gehienez Bizkaia 35.000€, Arabak 12.000€ eta Gipuzkoak 23.500€), mugatzen du laguntza teknikoaren kontratazio espedientearen aurrekontua eta Beldur Barik kanpainaren baitan, herritarrak sentsibilizatzeko egiten diren jarduerak edo ekintzen ordainketa.

Esta cantidad, junto con la que está prevista que aporten las tres Diputaciones Forales (máximos de Bizkaia 35.000€, Araba 12.000€ y Guipúzcoa 23.500€), es la que determina el presupuesto máximo del expediente de contratación de la asistencia técnica y de la financiación de las actividades o acciones de sensibilización a la ciudadanía que integran la campaña Beldur Barik.

Hitzarmen honetan araupetutako dirulaguntzen zenbatekoa ezin da izan inolaz ere, bakarrik nahiz beste batzuekin batuta, dirulaguntzaren xede den jardueraren kostua baino gehiago.

Las subvenciones reguladas en este convenio en ningún caso podrán ser de tal cuantía que de forma aislada o en concurrencia con otras subvenciones o aportaciones superen el coste de la actividad subvencionada.

3.- Azkenik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak konpromisoa hartzen du ekimen hori bere web orriaren eta erakundearen beste hedabideen bidez zabaltzeko, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera sustatu duela agertuz. Horretarako, bi entitateen logotipoak agertuko dira.

3.- Finalmente, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer se compromete a divulgar esta iniciativa a través de su página web y otros medios de difusión de la institución, haciendo constar que ha sido promovida junto con la Diputación Foral de Bizkaia. A tal fin se harán constar los logotipos de las dos entidades.

#### **Bosgarrena.- Aplikatu beharreko araudi juridikoa**

Honako hauen bidez arautuko da dirulaguntzaren ematea:

- a) 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duena.
- b) Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Araudia onesten duena.(DLFA)
- c) Hitzarmen hau.

#### **Quinta.- Régimen jurídico aplicable**

La concesión de la subvención se regulará por:

- a) la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.
- b) El Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 de subvenciones (RFS).
- c) El propio convenio.





d) Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak; haiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

#### **Seigarrena.- Beste laguntza eta dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna**

Hitzarmen honen dirulaguntza bateragarria izango da xede bera duten beste dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek eman dituen administrazioa edo erakundea (publikoa edo pribatua), izan Estatukoa, Europar Batasuneko, edo nazioartekoa. Ezingo da inolaz ere gainfinantzaketarik gertatu.

#### **Zazpigarrena.- Ordaintzeko modua**

Dirulaguntza aurreratuta ordainduko da, hitzarmena egin eta gero, eta ez da beharrezkoa izango, erakunde onuradunaren izaera kontuan hartuta, erakunde horrek inolako bermerik jartzea bere eginbeharrak beteko dituela bermatzeko Bizkaiko Foru Aldundiari.

Ordainketa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren kontu-korrante baten egingo da.

#### **Zortzigarrena. Jarduera egiteko epea.**

Dirulaguntzaren xede den jarduera 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean egingo da.

#### **Bederatzigarrena.- Dirulaguntza justifikatzeko epealdia eta modua**

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egiaztatuko du 2026ko otsailaren 28a baino lehen hitzartutako jarduerak egin direla.

Erakunde onuradunak Dirulaguntzei buruzko Foru Araudiaren 57. artikuluan araututako modalitatea erabiliko du foru funtsei emandako xedea justifikatzeko: justifikazio kontua eta gastuen frogagiriak. Beraz, justifikaziorako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko jarduketaren memoria, egindako jardueren eta lortutako emaitzen azalpenarekin (DLFAren 57.1 artikulua).
- Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa. Honako hauek jasoko dira bertan (DLFAren 57.2 artikulua):
  - Dirulaguntzaren xede den proiektuari egotzitako gastu eta sarreraren egoera-orria (ikus 1. eranskina) (DLFAren 57.2.a artikulua).

d) Las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

#### **Sexta.- Compatibilidad con otras ayudas y subvenciones**

La subvención objeto del presente convenio será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para el mismo objeto o finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin que en ningún caso pueda producirse sobrefinanciación.

#### **Séptima.- Forma de pago**

El pago íntegro de la subvención se realizará de forma anticipada, tras la formalización del correspondiente convenio, sin que resulte preciso, dada la naturaleza de la entidad beneficiaria, que esta constituya ningún tipo de garantía frente a la Diputación Foral de Bizkaia para garantizar el cumplimiento de sus obligaciones.

El pago se realizará en una cuenta de la Tesorería General del País Vasco.

#### **Octava. Plazo de ejecución.**

La actividad subvencionada se desarrollará entre el 1 de enero de 2025 y el 31 de diciembre de 2025.

#### **Novena.- Plazo y forma de Justificación de la subvención percibida**

EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer justificará la realización de las actividades objeto del convenio antes del 28 de febrero del año 2026.

La justificación por parte de la entidad beneficiaria del destino dado a los fondos forales se realizará mediante la modalidad regulada en el Artículo 57 del RFS: cuenta justificativa con aportación de justificantes de gastos. En virtud de ello la documentación justificativa que debe aportarse es:

- Memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos (Art. 57.1 RFS).
- Memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que deberá contener (Art. 57.2 RFS):
  - Estado de gastos e ingresos imputados al proyecto subvencionado (Ver Anexo 1) (Art. 57.2.a) RFS).



- Gastuen zerrenda sailkatua, gastuen egoera-orririko kontzeptuetariko bakoitzerako, hartzekodunaren identifikazioa, data, zenbatekoa eta gainerako datuak dituen (ikus 2. eranskina) (DLFAren 57.2.b artikulua).
- Fakturak, ziurtagiriak edo trafiko juridikoan horien balioak diren frogagiriak, bai eta ordainketa egiaztatze agiriak ere (DLFAren 57.2.c artikulua).
- Zerrenda sailkatua, memoria ekonomikoko lehenengo puntuko sarreraren egoera-orririko partidetariko bakoitzerako (DLFAren 57.2.f artikulua). (Ikus 3. eranskina)
- Dirulaguntzaren itzulketari dagokion ordainketa-gutuna, behar izanez gero.
- Relación clasificada de gastos, para cada uno de los conceptos del estado de gastos, con identificación del acreedor o acreedora, fecha, importe ... ( Ver Anexo 2) (Art. 57.2.b) RFS).
- Facturas, certificaciones, o documentos probatorios equivalentes en el tráfico jurídico, así como documentación acreditativa del pago. (Art. 57.2.c) RFS).
- Relación clasificada, por cada una de las partidas del estado de ingresos del punto primero de la memoria económica (Art. 57.2.f) RFS). (Ver anexo 3)
- Carta de pago de reintegro de la subvención, en su caso.

Halaber, erakunde onuradunaren eginbeharra izango da hitzarmen honen xedea dela-eta eskatzen zaizkion informazio eta agiri osagarriak ematea Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiar.

Asi mismo, la entidad beneficiaria estará obligada a facilitar a la Dirección General de Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia cuanta información y documentación complementaria le sea solicitada en relación con el objeto del presente convenio.

#### Hamargarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira gazteentzat zuzenduta dagoen emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko erakundeen arteko Beldur Barik kanpaina garatzeko erakunde onuradunak kontratatutako laguntza teknikoaren gastuen ondoriozkoak eta Beldur Barik kanpainaren baitan, herritarrak sentsibilizatzeko egiten diren jarduerak edo ekintzak ordaintzeko sortutakoak.

Emakundek-Emakumearen Euskal Erakundeak, honen aurreko idatz-zatian aipatu den laguntza teknikoaren kontratazioarako azaroaren 8ko 9/2017 Legean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoan, ezarri dena beteko du eta kontratazio horren tramitazio erari buruzko informazioa emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

Jasandako BEZa dirulaguntza jaso dezakeen gastutzat joko da baldin eta erakunde onuradunak ezin badu BEZ hori bere aitortpenean konpentsatu edo berreskuratu.

#### Hamaikagarrena.- Azpikontratatzea

Jarduera ezingo da azpikontratatu, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27.1 artikuluan adierazten den moduan.

#### Décima. Gastos subvencionables.

Se considerarán gastos subvencionables los derivados de la asistencia técnica contratada por la entidad beneficiaria y de la realización de las actividades o acciones de sensibilización a la ciudadanía que integran la campaña Beldur Barik.

Emakunde – Instituto Vasco de la Mujer se someterá a lo establecido en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público para la contratación de la asistencia técnica referida en el punto anterior e informará a la Diputación Foral de Bizkaia del modo de tramitación de dicha contratación.

El IVA soportado se considerará gasto subvencionable en la medida en que la Entidad beneficiaria no lo pueda recuperar o compensar en su declaración.

#### Undécima.- Subcontratación

No se admitirá la subcontratación de la actividad, en los términos recogidos en el artículo 27.1 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.





## Hamabigarrena.- Koordinazioa eta jarraipena

1.- Jarraipen Batzordeak koordinazio- eta jarraipen-lanak egingo ditu, hitzarmen honetan xedatua behar bezala egiten dela ziurtatzeko. Jarraipen Batzorde hori xede horrekin sortuko da, hain zuzen ere, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak koordinatuko du. Zentzu horretan, beste eginkizun batzuen artean, burututako ekintzen gastuak behar bezala justifikatu direla egiaztatuko du.

2.- Jarraipen Batzorde horretan Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariak parte hartuko dute. Bestalde, batzordera, aholkulari gisa, Berdinsareko -Berdintasunaren aldeko eta genero indarkeriaren aurkako euskal udal sarea- adituak eta ordezkari teknikoak gonbidatu ahalko dira, baita beste aditu batzuk ere.

3.- Emakundek programatutako jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko bilerak deituko ditu.

## Hamahirugarrena.- Ez betetzeak eta itzulketak.

Hitzarmen honetan edo aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintzatariko baten bat betetzen ez bada, edo maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada, hitzarmena suntsitu egingo da, laguntza galduko da eta jasotako diru kopuruak (osorik edo zati bat) itzuli beharko dira, dagozkien legezko korrituekin batera, ezertan eragotzi gabe bidezkoak izan daitezkeen legezko akzioak eta zehapenak eta eragindako kalte-galeren ordainketa. Diru kopuru horiek diru sarrera publikoak izango dira lege ondoreetarako.

2. Hurrengo kasuetan, dirulaguntza gisa jasotako kopuruak eta 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezarritako berandutze-interesak (dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketaren justifikazioa onartzen den egunera arte) itzuli beharko dira, osorik edo zati bat, kasu honetan:

a) Xedea, jarduera, proiektua edo dirulaguntza emateko funtsa den jokaera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean, edo epez kanpo betetzen denean.

Diruz lagundutako ekintzak egin direla frogatzeko ezarritako epeak igaro eta ez bada egiaztatu eta justifikatu ekintza guztiak aurrez ikusi bezala burutu direla, edo egin eta justifikatutako gastua dirulaguntza emateko

## Duodécima.- Coordinación y Seguimiento

1.- La coordinación y el seguimiento de la debida realización de lo dispuesto en el presente convenio se llevará a cabo a través de una Comisión de Seguimiento que se creará para tal fin y que será coordinada por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer. En este sentido, entre otras funciones, comprobará la adecuada justificación de los gastos de las acciones desarrolladas.

2.- Participarán en esta Comisión de Seguimiento representantes de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer y de la Diputación Foral de Bizkaia. Por otra parte, se podrá invitar a la misma, en calidad de asesoras, a personas expertas y representantes técnicas de la Red de municipios vascos por la igualdad y contra la violencia, Berdinsarea, así como otras posibles personas expertas.

3.- Emakunde convocará reuniones de seguimiento y evaluación de las actividades programadas.

## Decimotercera.- Incumplimiento y Reintegros

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones establecidas en el presente convenio o en la normativa de aplicación o la concurrencia de alguna de las causas contempladas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, implicará la resolución del convenio y consiguiente pérdida de la ayuda, con la obligación de reintegrar las cantidades percibidas (total o parcialmente), con los intereses legales procedentes, sin perjuicio de las acciones legales y sanciones que correspondan, así como de indemnizar los daños y perjuicios producidos. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a efectos legales.

2. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas en concepto de subvención, con la exigencia de intereses de demora previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se aprueba la procedencia del reintegro, parcial o total, en caso de:

a) Incumplimiento total, parcial o extemporáneo del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

Existirá incumplimiento si, transcurridos los plazos establecidos para la justificación de la realización de las acciones subvencionadas, no se hubiera acreditado y justificado en su totalidad su ejecución en la forma prevista o, en el supuesto de





onartutako kostua baino txikiagoa izan bada, ulertuko da baldintzak ez direla.

Hala ere, kasu bi horietan, dirulaguntzaren xedea eta helburua betetzat jotzen badira, dirulaguntzaren zenbatekoa birdoitu egingo da, benetan justifikatu edo burututako kostuen arabera. Horretarako, proportzionaltasun-irizpidea erabiliko da, dirulaguntza emateko ezarritako irizpide eta mugei dagokienez.

que el gasto realizado y justificado hubiera sido inferior al coste aprobado.

No obstante, si en estos supuestos se entienden cumplidas la finalidad y objeto de la ayuda, se procederá al reajuste de la cuantía de la subvención en función de los costes efectivamente justificados y/o ejecutados, aplicándose el criterio de proporcionalidad en relación con los criterios y límites establecidos para su otorgamiento.

### Hamalagarrena.- Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea

1. Dirulaguntzen Erregelamendua (Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen du) onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23koa 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera, borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

2. Erakunde onuradunak berak eskatuta foru dirulaguntza itzultzeko, Bizkaiko Foru Ogasunaren eredu ofizialaren araberrako ordainketa-gutuna erabili behar da; gutun horretan, honako hauek adierazi behar dira:

- itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta, bere kasuan, berandutze-interesak)
- kode-eredua
- itzulketaren arrazoia (itzultzen den dirulaguntza adieraziko da).

### Hamabosgarrena. Dirulaguntzaren finantza-kontrola

EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundeak lagundu egin beharko die eta eskatzen dituzten agiri guztiak eman beharko dizkie Foru Administrazioako organoei, bai eta Europar Batasunaren araudian finantza-kontrolako eginkizunak esleituta dauzkaten organoei ere, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluan adierazten den moduan.

### Hamaseigarrena.- Arau-hausteak eta zehapenak

Foru administrazioak emandako diru laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan arau-hauste administratibo xedatutako ekintzen eta ez egiteen arduradunak bertan araututakoaren arabera zehatuko dira.

### Decimocuarta. Devolución de subvención por propia iniciativa

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 76 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la entidad beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.

2. La devolución de la subvención foral a instancia de la propia entidad beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago según modelo oficial de la Hacienda Foral de Bizkaia, consignando:

- El importe a devolver (principal y, en su caso, intereses de demora).
- Código-modelo.
- Motivo del ingreso haciendo referencia a la subvención a devolver.

### Decimoquinta. Control financiero de la subvención

Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer estará obligada a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria tengan atribuidas funciones de control financiero, en los términos recogidos en el artículo 41 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

### Decimosexta.- Infracciones y sanciones

Las y los responsables de las acciones y omisiones tipificadas como infracciones administrativas en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la administración foral, serán sancionados de acuerdo con la regulación establecida en la misma.





### Hamazazpigarrena.- Indarraldia eta azkentzeko arrazoiak

Hitzarmen honen indarraldia sinatzen denean hasiko da eta 2025eko abenduaren 31n amaituko da. Hala ere, honen kontura finantzatu ahal izango dira 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera egindako jarduerak.

Hitzarmen hau suntsiarazi egingo da ondoko inguruabarretarikoren bat gertatzen bada:

- Sinatu duten bi alderdiak ados jartzea; horrelakoetan aurrez, hilabeteko epearekin, ohartarazi beharko dute.
- Alderdietatik edozeinek hartu dituen konpromisoak ez betetzea.

### Hamazortzigarrena. Aurreikusitako gabeko alderdi aragarriak eta auziak

Hitzarmenean honetan xedatutakoaren bidez arautuko da dirulaguntza hori, eta hitzarmenean beren beregi arautzen ez diren gaitan xedapen hauek beteko dira: maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duena, eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, Dirulaguntzei buruzko Araudia onesten duena eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea.

Hitzarmen honen izaera administratiboa da eta, hitzarmenean bertan xedatutakoaz gain, zuzenean edo analogiaz ezarri beharreko funtsezko zuzenbideko arauak izango dituzte aginduzko

Gai hauek direla eta sor daitezkeen auzigai guztiak ebazteko eskumena administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioari dagokio.

### Hemeretzigarrena.- Datu pertsonalen babesa

Alderdiak adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoari buruzko (3/2018) Lege Organikoari eta Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduari buruzko xedapenak, eta konpromisoa hartzen dute lege horretan aurreikusitako betekizunak konplitzeko, hitzarmen hau dela-eta dauzkaten erabiltzaileen datuei dagokienez.

Eta, hitzarmen honetan ezarritakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen direnek

### Decimoséptima.- Vigencia y causas de extinción

El período de vigencia inicial de este convenio será desde el momento de su firma hasta el 31 de diciembre de 2025, sin perjuicio de que con cargo al mismo se financien actividades desarrolladas desde el 1 de enero de 2025.

El presente convenio se resolverá cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias:

a) Mutuo acuerdo entre las partes suscribientes, con un preaviso de un mes.

b) Incumplimiento de los compromisos contraídos por cualquiera de las partes

### Decimooctava. Aspectos regulables no previstos y cuestiones litigiosas

La subvención se regirá por lo dispuesto en el presente convenio y, ante la falta de regulación expresa por parte del mismo, se estará a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el Decreto Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, y en la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho sustantivo que directamente o por analogía puedan resultar de aplicación.

La Jurisdicción Contencioso Administrativa será competente para resolver cuantas cuestiones litigiosas se susciten en relación con el mismo.

### Decimonovena.- Protección de datos de carácter personal

Las partes declaran conocer las disposiciones relativas a la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos), y se comprometen a cumplir las exigencias previstas en la misma respecto de los datos pertenecientes a las personas usuarias que se pudieran manejar dentro del presente Convenio.

Y en prueba de conformidad con lo establecido en el presente documento, y para que así conste y produzca efectos donde proceda, lo firman en tres ejemplares





**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



**Bizkaia**

foru aldundia  
diputación foral

honetako hiru ale sinatu dituzte, jatorrizkoak, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean:

originales en el lugar y la fecha indicados en el encabezamiento:

Miren Elgarresta Larrabide  
Emakundeko Emakumearen Euskal Erakundearen  
zuzendaria  
Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer  
**EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer**

Teresa Laespada Martínez  
Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna  
Sustatzeko foru diputatua  
Diputada foral de Empleo, Cohesión Social e  
Igualdad  
**Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia**



I ERANSKINA

ERAKUNDEA: EMAKUNDE- EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOERA 2025 ALDIAN

A) GASTUAK	B) SARRERAK
<b>1. Hornidurak</b>	<b>1. Negozio-zifraren zenbateko garbia</b>
a) Merkatugaien kontsumoa (600, 610)	a) Salmentak (700, 701, 703)
b) Lehengaien eta bestelako materia kontsumigarrien kontsumoa (601, 602, 611, 612)	b) Zerbitzuak ematea (705)
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak (607)	
d) Merkatugaien, lehengaien eta beste hornikuntza batzuen narriadura (693)	<b>2. Izakinen aldaketa (gehikuntza)(71)</b>
<b>2. Izakinen aldaketa (murrizketa)(71)</b>	<b>3. Ustiapeneko beste sarrera batzuk</b>
	a) Sarrera osagarriak eta kudeaketako beste sarrera batzuk(75)
<b>3. Langile-gastuak</b>	b) Ustiapenerako dirulaguntza (740, 747)
a) Soldatak, alokairuak eta asimilatuak (640)	Bizkaiko Foru Aldundia
b) Karga sozialak (erakundearen kargarako S. Gizarte Seg. eta beste batzuk) (642)	Udalak
	Emakundek
<b>6. Ustiapeneko beste gastu batzuk</b>	Beste batzuk
a) Kanpo zerbitzuak (62)	
Errentamenduak eta kanonak	<b>4. Ibilgetu ez-finantzarioaren dirulaguntzen egozpena (746)</b>
Konponketak eta kontserbazio-lanak	
Profesional independenteen zerbitzuak	<b>5. Finantzako sarrerak (76)</b>
Garraioa	
Aseguru-primak	
Banku-zerbitzuak eta antzekoak	
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	
Hornidurak (ura, argia eta beste batzuk)	
Beste zerbitzu batzuk	
b) Tributuak (63)	
c) Eragiketen ziozko horniduren galera, narriadura eta aldaketak (69)	
d) Inbertsio arrunteko beste gastu batzuk (659)	
<b>7. Ibilgetuaren amortizazioa (68)</b>	
<b>8. Finantza-gastuak (66)</b>	
GASTUAK, GUZTIRA	SARRERAK, GUZTIRA
	DEFIZITA







ANEXO I  
ENTIDAD: EMAKUNDE – INSTITUTO VASCO DE LA MUJER  
ESTADO DE GASTOS E INGRESOS PERÍODO 2025

<b>A) GASTOS</b>	<b>B) INGRESOS</b>
<b>1. Aprovisionamientos</b>	<b>1. Importe neto de la cifra de negocios</b>
a) Consumo de mercaderías (600, 610)	a) Ventas (700, 701, 703)
b) Consumo mat primas y otras mat consum (601, 602, 611, 612)	b) Prestaciones de servicios (705)
c) Trabajos realizados por otras empresas (607)	<b>2. Variación de existencias (aumento) (71)</b>
d) Deterioro mercaderías, mat primas y otros aprov (693)	
<b>2. Variación de existencias (reducción) (71)</b>	<b>3. Otros ingresos de explotación</b>
<b>3. Gastos de personal</b>	a) Ingresos accesorios y otros de gestión (75)
	b) Subvención de explotación (740, 747)
a) Sueldos, salarios y asimilados (640)	Diputación Foral de Bizkaia
b) Cargas sociales (S. Social a cargo entidad, otros) (642)	Ayuntamientos
<b>6. Otros gastos de explotación</b>	Emakunde
	Otros
a) Servicios exteriores (62)	<b>4. Imputación subvención de inmovilizado no financiero (746)</b>
Arrendamientos y cánones	
Reparaciones y conservación	<b>5. Ingresos financieros (76)</b>
Servicios profesionales independientes	
Transporte	
Primas de seguros	
Servicios bancarios y similares	
Publicidad, propaganda y relaciones públicas	
Suministros agua, luz y otros	
Otros servicios	
b) Tributos (63)	
c) Pérdidas, deterioro, variac. Provis operac (69)	
d) Otros gastos de gestión corriente (659)	
<b>7. Amortización del inmovilizado (68)</b>	
<b>8. Gastos financieros (66)</b>	
TOTAL GASTOS	TOTAL INGRESO
	Déficit







## PRESUPUESTO DE INGRESOS-GASTOS. BELDUR BARIK.

<b>GASTUAK / GASTOS</b>		
<i>Programaren laguntza teknikoa kontratatzea</i> Contratación Asistencia Técnica del Programa.		80.400,00 €
<i>Bestelako ekintzen gastuak</i> <i>Gastos de otras acciones</i>		69.000,00 €
<b>Guztira / Total</b>		<b>149.400,00 €</b>
<b>DIRU-SARRERAK / INGRESOS</b>		
<i>AFA Hitzarmena / Convenio DFA</i>	% 7,98	12.000,00 €
<i>GFA Hitzarmena / Convenio DFG</i>	% 15,63	23.500,00 €
<i>BFA Hitzarmena / Convenio DFB</i>	% 23,26	35.000,00 €
<i>EMAKUNDE</i>	% 53,13	78.900,00 €
<b>Guztira / Total</b>	<b>%100</b>	<b>149.400,00€</b>

